

## 2019ko urriaren 21eko Herriko Kontseiluaren txostena

### 1. Emaitzaren esleitzearen aldaketa

2019ko apirilaren 1ean deliberatu zen eskola garraioen aurrekontu gehigarria bururatzea. Beraz, funtzionamendu soberakina eta inbestimendu soberakina behar dira herriko aurrekontu nagusira aldarazi, eta horren ondorioz emaitzak esleituko zaizkio herriko aurrekontuari.

Eskola garraioari doakion aurrekontu gehigarriaren kontu administratiboak hau agertzen baitu:

- funtzionamendu-soberakina:	3 478,05€
- inbestimendu soberakina:	11 638,00€

Emaitzak esleituko zaizkio herriko aurrekontu nagusiar:

- Emaitza funtzionamenduetara erakarri da (002):	105 728,42 € (102 251 €)
- Inbestimendu emaitza erakarri da (001): defizita	249 565,14 € (261 203 €)

Aho batez onartua.

### 2. Aurrekontu nagusiar buruzko aldaketa erabakia

1.a:

FUNTZIONAMENDUA	
<b>GASTUAK</b>	
615221 – Eraikin publikoak	3478
6574 – Funtzionamendu laguntzak elkarteei	11638
<b>IRABAZIAK</b>	
002- Funtzionamendu soberakina erakarria	3478
023 – Biramendua inbestimendu sailera	11638

2.a:

INBESTIMENDUAK	
<b>GASTUAK</b>	
2315 – Materialaren erostea – 141. operazioa	-10000
2315 – Elizako obrak – 169. operazioa	-10000
2313 – Elbarrituendako helgarritasuna Herriko Etxean – 172. operazioa	-75000
2315 – Merkataritza lokalen antolaketa – 173. operazioa	-29000
204132 – Ordaindu dirulaguntzak ekipamendurako	11000
2315 - Plaza	5000
2315 – Seinaletika – 174. operazioa	10000
2313 – Eskola jantegiaren handitzea – 175. operazioa	98000
<b>OROTARA</b>	<b>0</b>

Aho batez onartua.

### **3. Hazparnealdeko Herriarteko Tokiko Hirigintza Planaren onartzea**

Herriarteko Tokiko Hirigintza Plana apailatzeko proiektua Elkargoko Kontseiluak finkatu zuen 2019ko uztailaren 20an. Hori dela eta, Euskal Hirigune Elkargoak Aiherrako Herriko Etxeari galdegin dio iritzia ematea Herriarteko Tokiko Hirigintza Plan proiektuari buruz, Pertsona Publiko asoziatuei eta kide diren herriei aurkeztua den bezala.

Aho batez onartua.

### **4. KELEBen 1. txostenaren onartzea**

KELEBek 2019ko irailaren 28an egin lehen txostena herriei eman ordainsarien aldaketa salbuesgarriari buruz, 2016an kide hartzaile ziren 97 herrien Herriarte eta Udal Baliabideen Banaketa Funtsen (HUBBF) zenbatekoak bermatzeko egina.

### **5. KELEBen 2. txostenaren onartzea**

2019ko irailaren 28ko KELEBek finkatu 2. txostena Elkargoko araudiaren ordainsariak finkatzen dituen kargu eskualdatuen ebaluazioei buruz:

- “Bide bazterretako belar mozte operazio” eskumena Errobi-Aturriko herriei (6 herri) berriz itzultzea: karguen eskualdaketaren ebaluazioa.
- “Animalia espezie inbaditzaileen kontrako borroka, adibidez Asiako liztorra” eskumena Ipar Euskal Herri hegoaldeko eta Errobiko herriei eta Hazparnealdeari (34 herri) berriz itzultzea: karguen eskualdaketaren ebaluazioa.

Aho batez onartua.

### **6. Eskola pribatuaren IKKEri eta SEASKAri dirulaguntza**

<b>Kontratupean diren eskolen funtzionamendurako prezio finkoa</b>	<b>2019</b>	<b>2018</b>	<b>2017</b>
Eskola pribatuaren IKKE (625 € Aiherrako haur bakoitz)	<b>18 125,00</b>	<b>15 000,00</b>	15 000,00
Jantegiko langilearen ordaintzea	<b>1 653,00</b>		
Seaska (625 € Aiherrako haur bakoitz)	<b>13 750,00</b>	<b>11 875,00</b>	7 500,00
	<b>33 528,00</b>	<b>26 875,00</b>	22 500,00

**Eskola pribatuaren IKKE** Aho batez onartua

**SEASKA** 9 boz alde, 2 kontra

## 7. 16 - Dirulaguntzak elkarteei

Dirulaguntzen emateko proposamena	2 019	2 018	2 017	beste galdeak
Abarratia - Aiherra	500,00	500,00	500,00	Ikas Bi
Irulegiko Irratia	150,00	150,00	150,00	Heldu eta Gazte Elbarrituendako Elkartea
Irulegiko Irratia - Ezohikoa			300,00	Integrazio Batzordea
ACCA Lehena	210,00	210,00	210,00	Frantziako elbarrituak
Eskola pribatuko burasoen elkartea	580,00	520,00	480,00	Ursuya kolegioko burasoen elkartea
Eskola publikoko burasoen elkartea	<b>HBP</b>	<b>HBP</b>	700,00	Elhuyar Kolegioko burasoen elkartea
AIHERRAKO CATM – PG	105,00	105,00	105,00	Uda Leku
Herria	150,00	150,00	150,00	Hemen Herrikoa
SOS Laborari	180,00	180,00	180,00	Gurutze Gorria
Bidekoekin	200,00			Mediabask
Lurzaindia	250,00	250,00	250,00	Euskal Haziak
Handisport Pays Basque	200,00	200,00	200,00	Xalbador kolegioa
Euskaltzaindia -		300,00		APF France handicap
	2 525,00	2 575,00	3 225,00	Jauzika
				Kanaldude
				AFSEP

Onartu da, 10 boz alde, 1 kontra

## 7. Herriko dirulaguntzak

Jakin ondoan herriko ikasleek zer dirulaguntza ukanen duten departamendutik 2018/2019 ikasturtean goi-mailako ikasketak egiteko, proposatu da dirulaguntza hauen ematea:

➤ CASTOREO Antton	18.00 €
➤ GERMAN Thomas	18.00 €
➤ GERMAN Bastien	18.00 €
➤ SAINT-MARTIN-DIT-MARTINON Maia	18.00 €
➤ DUNATE Itxaro	42.00 €
➤ DUNATE Ellande	42.00 €
➤ LOYATHO Maider	22.00 €
➤ LOYATHO Txomin	22.00 €
➤ MONGABURE Xan	72.00 €
➤ SEOSSE-OXARANGO Maitane	32.00 €
➤ SOULIGNAC Andréa	18.00 €

Aho batez onartua.

## 8. Suteen kontrako kanpoko defentsa

Suteen Kontrako Kanpoko Defentsarako Herriko Eskemaren apailatzeko proiektua. Tokiko Kudeaketaren Agentzia Publikoaren Herriarteko Bide eta Sare Zerbitzuak laguntza tekniko eta administratibo eginkizuna eramateko proposamena.

Aho batez onartua.

## **9 - Biztanle kontaketa**

Aihertarren kontaketa 2020ko urtarrilaren 16tik otsailaren 15era iraganen da. Beraz, bi errolda-langile behar dira enplegatu denbora osoz, bakoitza hiruzpalau astez.

Aho batez onartua.

## **10 - Gainerako gaiak:**

### ➤ **HTHPren inkesta publikoaren datak**

- 2019ko azaroaren 4an, astelehenean: Hazparne, Beskoitze eta Heletako herriko etxeetan 9:00etatik 12:00etara;
- 2019ko azaroaren 14an, ostegunean: Aiherra, Lekuine eta Izturitzeko herriko etxeetan, 14:00etatik 17:00etara;
- 2019ko azaroaren 20an, asteazkenean: Bastida, Lekorne eta Donoztiriko herriko etxeetan
- 2019ko azaroaren 26an, asteartean: Makea eta Donamartiriko herriko etxeetan eta Hazparnealdean, 9:00etatik 12:00etara;
- 2019ko abenduaren 5ean, ostegunean: Hazparne eta Beskoitzeko herriko etxeetan eta Hazparnealdean, 14:00etatik 17:00etara;

### ➤ **Lur zerga dispentsa laborantza biologikoa den lurretan**

**Frantzia mailako hautuzko dispositibo fiskala** da laborantza biologikoan ari diren etxalde berrien sostengatzeko egina, eraikia ez den lur zerga dispentsaren bidez.

-- **Herriko etxeak eta HELEPak** (lur zergen kudeantza eta bilketaren kargua dute) **libro** dira dispentsa horren aplikatzeko ala ez haien lurraldean.

-- Horretarako, **elkargoak behar du araberako erabakia hartu**: dagokion zergaren kuota partearen alde engaiatzen da.

- **Telefono hariak**: aireko komunikazio elektronikoko harien bazterrean diren landare-arbolak mozkindu behar dira.
- **Zuntz optikoaren ezartzea**: Webgune honetan ikus daiteke obrak zertan diren: <https://lafibre64.fr/le-chantier-en-direct/carte-previsionnelle> edo hemen: <https://fibre.guide/deploiement/rip/la-fibre-64>. Lotura optikoa instalatuko da Hazparnen azaroaren 5ean.
- **Oharra**: alokatze dosierrak aurkeztu behar dira urri bukaera gabe. Urtarril bukaeran bilduko da Esleitze Batzordea.
- Auzoaldeetako panelen kolorea: gorri-ubela (RAL 3005) hautatu da. Auzoaldearen izena letra handiz idatzia izanen da.

Bilkura 21:45ean bururatu da

Arño Gastambide, auzapeza